

Saihesbidearen aldeko plataformak lan-mahai bateratua eta konpromiso handiagoa eskatu dizkio Ermuko Udalari

Mahaia lanen eta aldi baterako murrizketen jarraipena egiteaz arduratuko litzateke, eta Udalak, Foru Aldundiak, plataformak berak eta interesa duten beste talde batzuek osatuko lukete. Mozio baten bidez, alderdi politikoei saihesbidearen obrak bizkortu dezaketen aurrekontuko partidak Batzar Nagusietan defenda ditzatela eskatu diete, baita trafiko astunaren murrizketak Aldundiaren eskumeneko errepideetan.

Joan den astean, 'Ermuko Saihesbidea – Variante Ya' hiritar plataformak mozio bat erregistratu zuen, erakunde publikoen aldetik konpromiso, aurrerapen eta gardentasun handiagoa lortzeko. Mozio hau Ermuko Udalak Sallabente eta Kaltxango arteko trafiko astunaren murrizketak aho batez onartu eta hilabete eskasera aurkeztu da. Hiritar plataformak eskatuta.

Mozioak eskatzen du, lehenik eta behin, talde politikoei, Bizkaiko Batzar Nagusietan duten ordezkariaren bidez, «**Bizkaiko Foru Aldundiaren hurrengo aurrekontuek saihesbidea ahalik eta azkarren gauzatzeko behar diren aurrekontu-partidak izatea aldarrikatu eta defendatzeko, eta horiek gauzatzeko atzerapena dakarren edozein erabakiren aurka jartzea**». Horrekin, EAJk eta PSOEk hilabete batzuk lehenago gobernu-akordioaren barruan aurkeztutako ibilbide-orria betetzen dela ziurtatu eta arindu nahi da, plataformak oraindik ere «gutxiegitzat» jotzen duen akordioa.

Bigarren puntuak dio lan-mahai bateratua sortzea eskatzen dio Ermuko Udalari. Bertan, Udaleko alderdi politiko guztiak egongo lirateke ordezkatuta, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituren eta Lurralde Garapenaren Sailaren ordezkari tekniko eta herritarren plataforma bera ere. Era berean, lan-mahai horretan interesa duten talde gehiago sartzeko aukera egongo liteke. Helburua da «**egin gabe dauden lanen proiektuen onarpena eta exekuzioaren jarraipena egitea, eta udalerriko trafiko-murrizketak kudeatzea**».

Azkenik, Batzar Nagusietan **trafiko astuna murrizteko proposamena egin eta babesa ematea eskatu da, Ermuko hiriguneko foru eskumeneko errepide guztietan**. Azpimarratu behar da, EAJk izan ezik, Batzar Nagusietako talde politiko guztiek konpromisoa hartu zutela 2023ko maiatzean Ermuko Udalak arlo horretan proposatzen dituen murrizketak onartzeko.